



ZERBIXEKO KONIZAZIOA DIATERMIA-HELDULEKUA ERABILIZ

Ebakuntza egin osteko zainketak eta gomendioak

- Zure ohiko dieta egin dezakezu.
- Ebakuntzaren egunean atsedean hartu, bai eta hurrengoan ere.
- Molestia abdominalen bat izango duzu agian, kolikoen antzerakoa. Beharrezkoa bazaizu, normalean hartzen duzun analgesikoa hartu dezakezu, Aspirina® izan ezik.
- 15 egunez edo are gehiagoz, odoljario txiki bat izango duzu agian.
- Dutxa hartu ahal izango duzu, baina ezin izango duzu bainurik hartu 30 egun pasatu arte.
- Lehen bi edo hiru hilekoak ohikoan baino luzeagoak edo oparoagoak izango dira agian, eta beharbada baita mingarriagoak ere.
- Ez zenuke sexu-harremanik izan beharko 30 egun igaro arte.
- Alta ematen dizutenean zehaztuko dizute noiz bueltatu behar duzun kontsultategira, azterketa egitera eta anatomia patologikorako emaitzei buruzko informazioa jasotzera.
- Etorkizunean haurdun geratzen bazara, zure ginekologoari jakinarazi beharko diozu zerbixeko konizazio bat egin dizutela.

LARRIALDIETARA JOATEKO ARRAZOIAK:

- Odoljario handia baduzu.
- Min bizia edo iraunkorra baduzu.
- Usain txarreko fluxua baduzu.
- 38 °C-ko sukarra edo altuagoa baduzu.